

anboto



"Gure inguruan uste genuen baino bakardade sentrazio handiagoa dago"

Talde bat gura bako bakardadean bizi direnei laguntzen ibili da sei hilabetean / 2-3

DURANGALDEKO KOPA

Asto Trail mendi lasterketak inoizko parte hartzaile kopururik handiena izango du zapatuan / 8



MAIALEN ZUAZUBISKAR

LEHIAKETA

ANBOTOren Udako Argazki Lehiaketa martxan da, irakurleen oportetako irudirik ederrenak saritzeko / 12

ELKARTASUNA

Ume sahararrek uda bakean eta lagun artean biziko dute Izurtzako aterpetxean eta inguruetan / 5



RIO DE ORO

MALLABIKO JAIK / 16



MAÑARIKO JAIK / 13



BidaiRent
ZURE ADENTURA MUGAERIK GABE
ALOKAIRUKO CAMPERRAK
Askatasunez bidaiatu.
Gu gainerakoaz arduratuko gara.
Erreserbatu zure camperra
WhatsApp bidez edo telefonoz.
Entrega maigua
Arreta pertsonalizatua



San Agustin
pol. 12
ELORRIO
682 029 255



Ane Fernandez eta Miren Biotza Isasti, Durangon.

"Gura bako bakardadea uste baino hedatuago dago; ez du adin, genero edo klase sozialik"

ANE FERNANDEZ ARRIOLA ETA MIREN BIOTZA ISASTI MENDIBE PROIEKTUKO KIDEAK

Gura bako bakardadean bizi diren herritarrei laguntzen aritu dira sei hilabeteen. Esperientziak bakardadearen inguruan zeukaten ikuspegia aldatu diela esan dute

Joseba Derteano DURANGO

Bakarrik egotea eta bakarrik sentitzea ez dira gauza bera. Gura bako bakardadeak geroago eta pertsona gehiagori eragiten dio, eta, errealitate horri erantzuteko, Durangoko Udalak akonpainamendu programa bat abiatu zuen urte hasieran. Proiektua udaleko Enplegu Planaren barruan garatu da eta Lanbidearen laguntza izan du. Sei hilabetez, iraupen luzeko langabezian zeuden sei pertsonak bakardade egoeran bizi ziren herritarrei lagundu diete; besteak beste,

sare sozialak eta komunitarioak indartzen. Horretarako, Lanbidek 75.000 euroko diru laguntza eman du, eta udalak 3.638 euro gehitu dizkio kopuru horri. Ane Fernandez Arriola (Eibar, 1979) egitasmoko koordinatzailea izan da, eta Miren Biotza Isasti Mendibe (Durango, 1962) laguntzaile taldeko kideetarikoa bat.

Nondik hasi zineten eta zelan heldu zineten laguntza behar zuten pertsonengana?

Ane Fernandez: Lehenengo, hiru asteko formakuntza sakona jaso genuen. Ondoren, kaptazioan

ipini genuen arreta. Kartelak egin genituen, hedabideetan irten ginen, medikuekin berba egin genuen... Proiektua ahalik eta gehien gizarteratzen ahalegindu ginen.

Miren Biotza Isasti: Hasieran ez zen erraza izan laguntza behar zuten pertsonengana heltzea. Normala den moduan, ausardia behar da telefonoa hartu eta laguntza eskatzeko, eta lehenengo pauso hori ematea kostatu egiten da. Bisitak egin genituen, telefonoz deitu genuen eta kaptazio lan handia egin genuen.

Denboragaz, oster, ahorik ahoak funtzionatu zuen. Gugaz egondako pertsonak gustura sentitu ziren, eta, horri eskerrak, bakarrik sentitzen ziren beste herritar batzuk ere gugaz hartu-emanetan jartzen hasi ziren. 25 bat pertsonagaz egon gara.

A.F.: Kasu batzuetan, ez ziren bakardadean sentitzen ziren pertsonak gugaz hartu-emanetan jartzen zirenak, euren seme-ala-bak baino. Euren aita edo ama bakarrik sentitzen zela ikusten zuten. "Seguruenik ez du gura izango", ohartarazten ziguten. Horrelakoetan, lehenengo hartu-eman beste modu batera landu behar izaten genuen, laguntasuna eskatzen zebilen ez zelako laguntasun hori behar zuena. Baina behin konfiantza sortuta, oso gustura geratu dira.

M.B.I.: Astean behin batzen ginen erabiltzaileekin, baina batzuetan baita birritan edo hiru bider ere, premiaren arabera. Gainera, ez genuen gura saioak beti egun berean izatea. Hartu-emanari dinamiktasuna eman gura genion. Antolaketa aldetik gaxagoa izan da guretzat, baina hartu-emanak naturalagoak eta malguagoak izatea lortu dugu. **Zein da gura bako bakardadean dagoen pertsona baten profila? Ala profil anitzak daude?**

M.B.I.: Uste genuen pertsona nagusiak izango zirela bakardadean sentitzen zirenak, baina denerik izan dugu: hogeitaka urtekoak ere bai eta hortik gora 91 urtera artekoak. 50 urtetik beherakoak deitzen hasi zirenean harritu egin ginen. Beraz, ez dago profil zehatz bat. Batzuk adinekoak dira, arazo fisikoak dituztenak, eta horrek zaildu egiten die hartu-eman sozialak naturaltasunez garatzea. Beste batzuk kanpotik etorritako herritarrek dira; herria ezagutzen ez dutenez, laguntza behar dute gizarteratzeko eta herriko ekintzak eta ingurua ezagutzeko. Eta beste profil bateko jendea ere aurkitu daiteke.

A.F.: Gure lana ez da izan inori zer egin behar zuen esatea. Pertsona bakoitzari bere bidea egiten laguntzea izan da helburua: gidatzea, aholkuak ematea eta aukerak erakustea, bakoitzak hartu-emanak bere erritmoan sortu eta bere egoera hobetzeko. **Zelan egiten zenuten lehenengo hartu-emanak? Zelan jakiten zenuen bakoitzak zer behar zuen?**

M.B.I.: Hasteko, entzun egiten genien. Konfiantzazko inguru lasai bat sortzen ahalegintzen

ginen, kafe baten bueltan edo elkarriketa informal baten bidez. Hasieran, askotan, ez dute dena kontatzen; babestu egiten dira, zelanbait esatearren; lotsagaitik edo. Sozialki ez dago ondo ikusita bakarrik egotea. Denboragaz, konfiantza hartu ahala, gehiago zabaltzen dira. Entzutea izan da gure tresnarik garrantzitsuenak; esaten zutena entzutea, eta baita esaten ez zutena ere, hortik ere informazio baliotsua atera daiteke eta.

A.F.: Pazientzia behar da. Pertsona bakoitzak bere denborak ditu. Ezezagun bat edo bi zure etxera doaz eta ez dakizu zer gertatuko den. Konfiantza eta konplizitatea eraiki egin behar dira. Saiorik saiora erosoago sentitzen zirela ikusi dugu. Orduan azaleratzen ziren beharrak, hiru-lau saioen ondoren.

Gazte jendearen eta adinekoen premiak desberdinak dira?

A.F.: Badira aldeak, baina denek dute gauza baten beharrezana: entzunak sentitzearena. Eta horri beste bat ere gehituko nioke nik: talde bateko parte sentitzea. Hasierako saioetara pertsona bi joaten ziren, eta gero, normalean, bakarra geratzen zen. Hala ere, kasu askotan berriro ere lagun bi joaten hasi ziren. Zergaitik? Konturatu ginelako talde bateko parte izatea gustatzen zitzaizela, eta hiru pertsonagaz horixe lortzen genuen. Eta premia hau ere adin guztietan ikusi dugu.

M.B.I.: Gazteek beste kezka batzuk ere badituzte: ikasketak bideratzea, etxebizitza bilatzea... Bestalde, adinean aurrera egin ahala osasunari loturiko premiak areagotzen dira: medikua-renera laguntzea eta antzekoak. Horrez gainera, paseatzera joaten ginen eurekin, edo, adibidez, irakurtzea gustatu baina

"Deneriko pertsonak izan ditugu: hogeitaka urtekoak eta hortik gora 91 urtera artekoak"

"Konturatu gara gure inguruan uste genuena baino bakardade sentsazio handiagoa dagoela"



Programan parte hartu duten sei kideak.

etxetik irten ezin direnei liburuak eramaten genizkien.

A.F.: Beste batzuekin hau gertatzen zen: ez zuten uste esku-bidea zutenik zerbitzu batzuk eskatzeko. Eurek baino okerrago zeudenentzat zirela pentsatzen zuten. Sarritan ez zen lotsagaitik, baizik eta uste zutelako zerbitzuak ez zetozeela bat euren premiekin. Beraz, egoera horiek bideratzen lagundu diegu.

M.B.I.: Edozelan ere, gako bat dago denen kasuan: haiei entzutea eta entzunak direla sentiaraztea. Eta bazekiten guri esandakoa gure artean geratuko zela eta guztiz errespetatuko gurela euren pribatutasuna.

Bada bereziki harro sentiarazi zaituzten lorpenik?

A.F.: Niri poz berezia ematen didan lorpen bat hau da: bakarrik zeuden pertsona batzuek elkar ezagutzea eta euren artean hartu-emanak sortzea lortu dugu. Izan ere, egitasmo honen hasieran helburu nagusi bat geneukan: ahal izanez gero, pertsonak ezagutzen genituen baino hobeto agurtzea egitasmoaren amaieran. Durangok aukera asko eskaintzen du, baina askotan jendeak ez ditu ezagutzen. Tailerren eta bestelako ekintzen bitartez pertsonak elkartzea lortu dugu, eta adinekoen artean, esaterako, bi-hiru bikote edo talde txiki sortzea. Batzuk dagoeneko euren kabuz geratzen dira paseatzera joateko, edo zeozer ikustera joateko, edo, besterik ez bada ere, bata bestearen etxera joan eta elkarregaz kafe bat hartzeko.

Zelan eragin dizue esperientzia honek maila pertsonalean?

M.B.I.: Konturatu gara gure inguruan uste genuen baino bakardade sentazio handiagoa dagoela. Batzuetan hunkituta helden ginen etxera. Pentsatzen genuen: zelan da posible gure

alboan horrelako egoerak egotea eta gu konturatu ere ez egitea? Esperientzia honek aurretik genuen ikuspegia aldatzeko balio izan digu. Beraz, alde batetik esperientzia gogorra izan da, baina baita interesgarria ere. Pertsona legez asko aberastu gaitu. Ematen duzu, baina jasotzen duzuna ere handia da. Pertsona batzuek galdetzen ziguten ea uda ostean berriro bueltatuko ginen, gugaz gustura zeudelako. Ez dut uste inor guztiz atera dugunik bere bakardade-tik, baina euren egoera arintzen lagundu dugu.

A.F.: Hasieran batzuek ez zuten parte hartu gura, errezeloz joan ziren saiora, eta ikustea azkenean interes handia zutela berriro elkartzeko... gauza handia da. Gustura egon direla jakiteak satisfazio handia ematen dit.

M.B.I.: Esperientzia honek hau-xe erakutsi digu: gura bako bakardadea uste baino hedatua-go dagoela, eta ez duela adinik, generorik ezta klase sozialik ere. Ikusi dugunaren ondoren, uste dut geure burua bakarrik egotera prestatu behar genukeela. Ahal den neurrian, bakardadea bizitzeko eta gozatzen ikasi behar genuke, une hori inoiz helden bada sufrimendu hutsa izan ez dadin. Azken batean, dugun sarea, lagunak, familia eta ingurua, zaindu behar ditugu, bakardadea sentitzen dugun momentu hori helden denean, sare hori beteta edukitzeko.

Ezer gehitu gura duzue?

A.F.: Gure taldearen garrantzia nabarmendu gura nuke. Profil desberdineko jendeagaz talde eraginkorra izan dugu. Erabakiak denon artean hartu ditugu. Bestetik, Andragunean batzen ginen eta hango langileei eskerrak eman gura dizkiegu, oso ondo tratatu gaituzte eta.

OSTALARITZA gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu
688 731 402
zenbakira

XIBERU

Xiberu Taberna
 xiberutaberna



Zezilia Gallartzagaitia, 9 ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

GAUARGI

gauargitaberna



Dantzari, 4 behea IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

OLAJAUREGI

Hotel Olajauregi
 hotel_olajauregi_jatetxea



Kurutziaga, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864

Dastatzeko menua 50
Karta / Taldeko menuak.
Galdetzeko deitu edo webean begiratu.

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitaratekoak eta kazolatxoak.
Ostiraletan pintxopotea!

Durangok kale berria du Komentukale eta Larrasoloeta artean: Zesteruena

Berdeguneak, kalistenia praktikatzeko eremu bat eta aparkalekuak ipini dituzte

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko erdiguneak eremu erabilgarri bat gehiago du joan zen astetik: Zesteruena kalea. Kale berria Kurutziaga kalearen atzealdean dago, eta Komentukalea eta Larrasoloeta lotzen ditu. Berdeguneak ipini dituzte, adinekoek ariketa fisikoa egiteko makinak, eta kalistenia lantzeko eremu bat ere bai. Udal ordezkariak joan zen barikuan egin zuten inaugurazio ekitaldia, Unzueta familiako kideak lagun. Izan ere, Larrasoloetako bide bazterrean zegoen *Zesteruena*, Unzueta familiako kideen base-ri eta lantoki historikoa. Etxea bota egin behar izan zuten Birjinosteko etxebizitzak eraiki ahal izateko, eta gaur egun eraikina- ren arrastorik ez dagoen arren Zesteruena historikoak lekutxo bat izaten jarraituko du durangarren ahoan eta herriko kale izendegian, toponimoari eskerrak.

Kale berriagaz, Durangoko erdiguneak 13.239 metro karratu irabazi ditu. Horietatik 7.996 oinezkoentzako espaziorako eta aparkalekuak egiteko erabili dituzte. Gainerako azalera, berdeguneetarako. Halaber, kale berriak Birjinosteko etxebizitza



Kale berriaren ikuspegia.

berriak Komentukalegaz lotuko ditu. Mireia Elkoroiribe alkateak adierazi du kale berriagaz helburu bi bete dituztela: Birjinosteko etxebizitzaren obra behin betiko amaitzea eta herriko erdiguneko eremu bat herritarrentzat izatea. Unzueta familiako kideak pozarren agertu dira Zesteruena toponimoagaz. Udalak oroigarri bat eman die errekonozimendu legez.

Kritikak

Herriaren Eskubidea alderdia kritiko agertu da Zesteruena

kalearen lanketaz, eremu berria "berandu, txarto eta parte hartzerik barik" kudeatu dela iritzita. Talde independenteak dio "akats larriak" topatu dituela eremu berrian, eta horixe komunikatu diotela, hain zuzen ere, bizilagun batzuek: "Ez da ingeniaria izan behar honek zentzurik ez duela ikusteko", esan dute. Horren harira, alderdiak Lurralde batzordera eramango du auzia, "konponbideak auzokideekin batera topatzeko".



Gerediagako Gotzon Gomez, Andu Allande Moreno eta Idoia Otaduy.

Andu Allande Moreno elorriarrak irabazi du Gazte Ikerlarien saria

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Durangaldeko Ikerlari Gazteen sariak badu aurtengo edizioko irabazlea: Andu Allande Moreno Basabe. Elorriarrak bere sorterriko Funcor kooperatibari buruz egindako azterlanagaitik lortu du saria. Ikerlanak *Kooperatibismoa. Kapitalismoaren barneko argi-izpi hutsala. Funcor kooperatibaren ibilbidea ardatz harturik eginitako ikerketa* du izena. Bertan, Morenok lantegiari buruzko begirada berri bat eskaini du, orain arte Funcorri buruz aztertu direnen artean. Izan ere, irabazleak Funcorrek Elorrrion izandako eragina aztertu du, fokua orduko testuinguruan

ipinita. Elorriarrak 1.500 euroko saria jaso du Gerediaga elkartearen eta Mankomunitatearen eskutik. Gotzon Gomez Gerediaga elkarteako presidentek eta Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentek eman diote saria.

Iune Ruizek, Iruri Altzerrekak eta Peru Bilbaok osatu dute epaimahaia. Euren iritziz, Morenoren lanak Durangaldeko historia garaikidearen pasarte garrantzitsu bat jorratzen du: "Ondo egituratua dago, bibliografia anitza dauka eta aurrez idatziz dokumentatu bako informazioak ere jasotzen ditu". Honako hau Ikerlari Gazteen bosgarren sariketa da.

Argiteria publiko berria Alde Zaharrean eta Erretentxun

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak argiteria publikoa berrizten dabil. Egun haue- tan Alde Zaharrean eta Erretentxun dabilta instalazio lanak egiten. Lanak iazko urte amaieran hasi zituzten, eta, aurreikuspenen arabera, irailean amaituko dituzte. Guztira, 3.620 argi-puntu aldatuko dituzte LED sistemara. Era berean, mantentze-lanak egin dituzte 2.000 zutabetan, eta apurtutako beste 350 aldatu dituzte. Inbertsioa 5,7 milioi eurokoa izan da. Mireia Elkoroiribe alkateak proiektuaren garrantzia azpimarratu du: "Oinarritzko azpiegitura bat berrizten gabiltza, herritarrei segurtasun handiagoa eta zerbitzu jasagarriagoa eskaintzeko".

San Inazioko parkea euritarako prest



E.H. DURANGO

Durangoko Udalak San Inazioko txintxaunak berriztu ditu eta teiltatua ipini die horiei. 300 metro karratuko teiltatua ipini dute, egurrezko arkupea eta polikarbonatozko itxitura dituen. Horrez gainera, parkea handitu eta jolaserako lau elementu gehiago ipini dituzte. Halaber, zoladura, argiztapena eta hiri altzariak berriztu dituzte. Lanek 244.474,52 euroko aurrekontua izan dute.

Venezuelako kontsularen eskertza



DURANGOKO UDALA

E.H. DURANGO

Andreína García Suárez Venezuelako kontsula Durangon izan da udal ordezkariekin batera, herrialdearen aldeko kanpaina solidarioan parte hartu duten durangarrei eskerrak emateko. Durangarrek premia biziko eta larrialdiko materiala eman dute dohaintzan, lurrikaretan kaltetutakoei emateko, hala nola kanpin dendak, mahai tresnak, pixoihalak eta umeentzako gaiak.

Ekipseari buruzkoak aztergai, Javier Armentiaaren eskutik



Javier Armentia.

J.D. DURANGO

Abuztuaren 12ko eguzki eklipseari begira, Hontza Museoa berbaldi berezi bat antolatu du. Datorren egunean, uztailak 23, 18:30ean, Javier Armentia astrofisikari eta dibulgatzaile ezagunak *Ekliptserako atzerako kontaketa* hitzaldia emango du Durangoko Kurutzesantun. Bertan, eklipsearen inguruko xehetasun zientifikoak ezagutaraziko ditu, eta fenomeno astronomiko hori modu seguruan zelan behatu azalduko du. Armentia zientzia dibulgatzaile ezaguna da, Iruñeko Planetarioko zuzendaria izandakoa.

Ume sahararrek esperientzia berriak eta osasun arreta izango dituzte Izurtzako egonaldian

Ume guztiek aniztasun funtzionala dute eta euretariko bi lehenengoz etorri dira

J.D. IZURTZA

Río de Oro elkartearen bitartez, 8tik 12 urtera arteko bederatzia ume saharar Izurtzako aterpetxean igarotzen dabilta uda. Denak Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetatik (Aljeria) etorri dira. Udan zehar, aisialdiko askotariko jarduerak egingo dituzte eta osasun arreta ere jasoko dute.

Zazpi umek berriro egingo dute egonaldia hemen, eta bi lehenengoz etorri dira. Ume guztiek aniztasun funtzionala dute, hala nola hemiplegia edo entzumen-desgaitasuna. Horregaitik, egitasmo honen oinarrietariko bat umeei osasun arreta eskaintzea da. Horretarako, Río de Oro hitzarmena du Osakidetzagaz, eta ume guztiei pediatria azterketa egiten zaie heldu bezain laster. Ondoren, beharrezkoa denean, espe-



Begiraleak eta ume sahararak, Izurtzan.

zialistengana eramaten dituzte. "Hemen dauden denboran, ahalik eta proba eta tratamendurik gehien egitea da helburua. Urte osoko jarraipena behar duten kasuetan, abenduan Tinduferra egiten dugun bidaian eramaten diegu tratamendua", adierazi

Lehenengoz etorri diren ume biek euren bizitzan aurrenekoz ikusi dute itsasoa

du Río de Oro elkarteko Mikel del Arcok.

Egonaldian zehar, haurrek askotariko jarduerak egiten dituzte. Besteak beste, Durangoko igerilekuetara eta hainbat hondartzatara joaten dira. Lehenengoz etorri diren ume biak euren bizitzan aurrenekoz ikusi dute itsasoa. Horrez gainera, astero jarduera berezi bat egiten dute. Aurten Alluitz Naturra baserri-eskolara joan dira eta Bilboko itsasadarrean itsasontziz ibili dira. "Uda ahalik eta gehien aprobetxatzen ahalgintzen gara eta umeak oso pozik daude. Egokitzena bikaina izan da", azaldu du Mikel del Arcok.

Azkenik, Del Arcok boluntarioen "lan handia" eskertu, gazteei parte hartzeko deia egin eta gatazkaren konponbidea blokeatzen dutenei mezua bidali die. "Dagokien erantzukizuna euren gain hartu behar dute gatazkari irtenbidea bilatzeko. Irtenbide hori Mendebaldeko Sahararen etorkizunari buruz saharar herriak bere lurraren gainean erabakiko duen erreferenduma egitean datza", gaineratu du del Arcok.

Stop Bide Indarkeriak 3.000 durangar sentsibilizatu ditu bide segurtasunean

Ekaitz Herrera DURANGO

Stop Bide Indarkeriak ikasturte honetako balantzea egin du: Elkartek Mugikortasun Seguruaren Programa landu du Durangoko Udalarentzat, eta ondorioztatu du 2025-2026 ikasturtean 3.000 herriarren artera zabaldu duela bide segurtasunari buruzko sentsibilizazioa. Durangoko ikastetxe guztietako 2.730 ikaslek parte

hartu dute bide-hezkuntzako saioetan, eta hainbat tailer egin dute adinekoekin eta aniztasun funtzionala duten pertsonekin. Ikasturte honetako berritasunetarikoa bat lhes-gela izan da, Institutuko ikasleekin estreinatu dutena. Horrez gainera, *Arduraz gidatu* informazio-liburuxka banatu dute oinezkoen eta patinete-erabiltzaileen bizikidetzak hobetzeko.



Stop Bide Indarkeriaren jardunaldi bat. STOP BIDE INDARKERIA

Ardi txakurren lehia Mañarian

E.H. MAÑARIA

Uztailaren 25ean ardi txakurren lehiaketa jokatu da Mañarian, Artxate elkartearen eskutik. Lehia Andra Mari kalean jokatu da, 18:00etan. Inaxio Irakulis, Mikel Pagazurtundua, Angel Gerediaga, Iñaki Idigoras, Juanra Azkargorta eta Pello Segurola lehiatuko dira euren txakurrekin.



ARTXATE

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

UZTAILA

23

TUSUY BALLET FOLKLORIKOA

18:30 Komentuan
OSTEGUNA (euria egiten badu: eskolako patioan)



Marilú Uria zornotzarraren lekualdaketa dela eta, udal alderdiek ardura agertu dute

EH Bildu eta Ezker Anitza-IU alderdiek eta udalak ohar bana kaleratu dute



Uria Nafarroa zentroko erabiltzailea da.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako EH Bilduren eta Ezker Anitza-IUren udal taldeek adierazpen bateratua kaleratu dute Marilú Uriaren eta bere familiaren egoera salatzeko. Uriak down sindromea du eta hogeitau urte baino gehiagoan arreta espezializatua jaso du Nafarroa Zentroan, aniztasun funtzionala dutenentzako eguneko zentroan. Zornotzako bizilagun honek 65 urte baino gehiago ditu gaur egun eta Aldundiak nagusien eguneko zentrorra lekualdatu du. Alderdi politikoen iritziz, erabakia "arra-

zoi ekonomikoetan oinarritutako adinagaitiko diskriminazioa" da, eta Amaia Antxustegi Gizarte ekintzako foru diputatuak "erakutsitako pasibotasuna" ere kritikatu dute. Horrela, Aldundiari eta udalari "euren bulegoetatik irteteko" eta lekualdaketa "geldiarazteko" eskatu diete. "Pertsonak ezin dira salgaiak balira legez tratatu, zentro batetik bestera eramane, adin jakin batera heldu direlako bakarrik. Mariluk bere inguru ezaguna, bere errutinak eta bere lotura emozionalak galtzeko arriskua du erabaki senti-

beragabe baten ondorioz", gaineratu dute. Susmoa dute, gainera, erakundearen jarrerak "motibazio ekonomiko" bati erantzuten diola, "ahulenei arretaren kalitatea murriztuta". Hori dela eta, Uriari bere "ohiko ingurunearen baliabide espezifiko egokiak "bermatzeko" eta "foru araudi zaharkitu eta bidegabekoa aldatzeko premiazko eztabaida bat" zabalatzeko eskatu dute.

Udala "laguntzeko prest"

Zornotzako Udalak, bestalde, familiari "laguntzeko konpromisoa berretsi" du, eta argi utzi gura izan du "eguneko zentroak arautzea" Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena dela, "bai desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideetan, eta baita adinentzakoetan ere". Uria Nafarroa zentroan mantentzea Aldundiaren proposamena izan dela azaldu du. "Prozesua trantsizio egokitu baten bitartez laguntzeko udalak duen konpromisoa jasotzen du. Mariluren beharri zanak ahalik eta gehien zainatzeko eta artatzeko", esan du udalak. Hala ere, "familiaren kezka" ulertzen dutela azaldu dute ohar baten bitartez.



Eguaztenean hasi zituzten Karmenak.

Marea urdina asteburuan Zornotzako txoko guztiak hartzeko prest

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzan eguaztenean hasi zituzten Karmen jaiak. Hilaren 27ra bitartean, zuzeneko musikaz, lehiaketa gastronomikoez eta adinekoentzako ekitaldiez gozatzeko aukera egongo da. Udal txeko plaza jendez lepo zegoela egin zioten harrera Zorhontzari eta orain 50 urte lehenengo jai demokratikoak antolatu zituzten kuadrilletako kideei. Horren ondoren, Zornotza parrandan murgildu zen. Eta gehiago gura duenak asteburu honetan ere izango du aukera jaietz disfrutatzen.

Beste urte batez, musika izango da Zornotzako Karmenetako zutabe nagusietariko bat. Uztai-

laren 17an Latzen taldeak kontzertua emango du. Zapatuan Heitxi eta Jonkass artista zornotzarrek herrikideen aurrean egingo dute emanaldia.


Gastronomia, ere

Zornotzako jaiak ezin dira ulertu gastronomia lehiaketarik barik, eta uztailaren 18an, zapatuan, marmitako lehiaketa jendetsuak kaleak beteko ditu. Lehiaketa hau erakusleihu aparta izaten da sukaldaririk trebeek euren dohainak erakusteko eta lagun artean giro ederrean batzeko. Belaunaldi desberdinetako zornotzarren arteko hartu-emana estutzeko aukera polita ere izango da.

Atxondoko Udalak ekintza bandalikoak salatu ditu

A. M. ATXONDO

Atxondoko Udalak salatu du ezezagun batzuek kalteak eragin dituztela herriko zenbait gunetan. Besteak beste, igerilekuan eta komun publikoetan eragin dituzte kalte horiek. Horrelako jarrerek herritar guztienak diren espazioei eta herritarrei euren ere eragiten dietela dio udalak. "Horrelako jokabideak onartezinak dira eta ondorioak izango dituzte", salatu dute. Besteak beste, komun publikoko konketaren hustubidea paperez bete zuten, eta hormak eta zorua paperez bete eta zikindu zuten. Horrek oztopatu egin ditu instalazioen erabilera eta mantentze-lanak.



Atxondoko komun publikoa. ATXONDOKO UDALA

Jaurlaritzari eta Aldundiari deia, belodromoaren etorkizuna argitzeko

E. H. BERRIZ

Mankomunitateak dei egin die Jaurlaritzari eta Aldundiari belodromoari buruzko mahai bat eratzeko, proiektuaren etorkizuna, bideragarritasuna, finantziazioa eta erakundearen arteko adostasuna definitzeko. Instituzioa eta Aldundia belodromoaren etorkizuna aztertzen aritu dira azken hileetan, eta Mankomunitateak esan du biak ondorio berera ailegatu direla: "Beharrezkoa da proiektua berririo planteatzea eta dimentsio ekonomiko erreala eta bideragarri batera egokitzea". Mankomunitateko arduradunen esanetan, aurreko legegintzaldian idatzitako proiektuak "6,8 milioi euroko kostua" zuen, eta ez zuen

"ez bideragarritasun azterketarik, ez kudeaketa eredurik ezta finantziazio bermaturik ere". Hori dela eta, proiektu hura "errealitatera" eta "dimentsio ekonomiko erreala eta bideragarri" batera egokitu gura dute. Gainera, proiektua gauzatzeko epeak ere amaitu direla nabarmendu dute, eta Mankomunitateak 1,5 milioi euroko diru laguntza bueltatu beharko dio Aldundiari.

Belodromoaren etorkizuna "erakunde guztien adostasunagaz" zehaztea izango da Mankomunitatearen hurrengo pausoa. Hain zuzen ere, Jaurlaritza, Aldundia eta txirrindularitza federazioak deitu dituzte lan mahaira horretarako.

Okm
batzen gaituen
distantzia



POLTSIKO
RAKO
**ABAN
TAILAK**

EGIN ZAITEZ
ANBOTOKIDE

946 816 558
DEITU ETA
EMAN IZENA!



 **ANBOTOKIDE**

ESKURATU ANBOTOKIDEEK DITUZTEN **ABANTAILA GUZTIAK**

40 EURO ORDAINDUTA URTEAN, LORTU ABANTAILA HAUEK GUZTIAK



HILEROKO
ZOZKETA
BEREZIAK

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskizunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2025ean, 200 anbotokidek
baino gehiagok jaso dute sari bat.



DESKONTUAK
ANBOTOKO
ZERBITZUETAN

Eskelak, iragarki sailkatuak,...



POLTSIKORAKO
ABANTAILAK

Deskontuak Durangaldeko
eta Euskal Herriko hainbat
komertzio eta Euskoil gasolindegian.



ONURA
FISKALAK

Errenta aitortpenean,
Anbotorena lehentasunezko
jarduera delako, **%45eko** hobaria.



OKM BATZEN GAITUEN DISTANTZIA



Hiru korrikalari helmugara bidean. MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asto Trailek inoizko parte hartzaile kopururik handiena izango du

500 mendi korrikalarik parte hartuko dute: 200 kirolarik ibilbide laburrean, 150ek luzean eta 150ek mendi martxan

Ekaitz Herrera GARAI

Korrikalari kopuruari dagokionez behintzat, honako hau baieztatu daiteke: aurtengoa orain arteko Asto Trail probarik jendetsuena izango da. Iazko 400 parte hartzaileen langa igarota, zapatu honetan 500 kirolari ibiliko dira Garaiko aldatsetan gora eta behe- ra. Proba laburrean 200 lasterkari lehiatuko dira, eta 150 izango dira ibilbide luzeko partaideak. Mendi martxan beste horrenbeste eman dute izena, 150 kirolarik. Datuok eskuetan, antolakuntza taldeko kideak "pozik eta ardu-

ratsu" daude. Halantzik azaldu du, behintzat, Unai Etxeitak: "Pozik, jendeak gudan jarri duen konfiantzagaitik, baina arduratsu ere bai, fronte asko dagoelako zabalik dena ondo irten dadin". Etxeitaren esanetan, iazko feedback ona izan da aurtengo arrakastaren gako, "irabazle askok aurtun ere parte hartzea erabaki dute eta". Probak era mailakatuan hasiko dira, ordu desberdinetan, "korrikalariak ibilbidean zehar larregi ez nahasteko, hau da, bakoitzak bere erritmoan disfrutatzeko". Mendi martxa 08:00etan

hasiko da, lasterketa luzea 09:30ean, eta laburra 10:00etan.

Boluntarioak eredu

500 parte hartzaileek Garaiko herritarren abegikortasuna izango dute ondoan, probetan ezer falta ez dadin. 80 bat garaitar era boluntarioan ibiliko dira lanean. Etxeitak horien guztien lana eskertu du: "Boluntarioen eta babesleen laguntzarik barik ezingo genuen halakorik antolatu. Egundoko lana egiten dute, txalotzekoa. Nagusien elkartek, adibidez, urtero-urtero laguntzen digu. Eskerrik asko denei", azpimarratu du Etxeitak.

Aurten, herriko baserri-landa bi aparkaleku legez erabili ahal izango dira, parte hartzaileen zein bisitarien ibilgailuak aparkatzeko. Edozelan ere, antolatzaleek autoa partekatzerantz deitu dute.



Altza Porru taldeak uztailaren 24an eskainiko du erromeria. BIZKAIKO ERROMERIA EGUNA

Altza Porru, Kiliki, tortillak eta elektrotzaranga Garaiko jaietan

Ekaitz Herrera GARAI

Garaitarrek egun ugari dute aurretik gozamenerako. Jaien atarikoak asteburu honetan izango dute, Asto Trail probagaz, baina dantzaldiak, ekitaldi gastronomikoak eta parranda uztailaren 19tik 31ra izango dituzte. Domeka honetan, adibidez, herri kirolak (12:00), nagusien bazkaria (14:00) eta bertsolariak izango dituzte. Azken horretan, Igor Elortza, Miren Artetxe, Irune Basagoiti eta Maialen Lujanbio egongo dira kantatzen, Leire Vargas gai jartzailea ondoan. Santixau egun bezperan, uztailaren 24an, dantzarien azken entsegua eta Lumagorriren oilasko pintxoak egongo dira

(19:00), eta gau horretan etorri-ko da jaietako lehenengo parranda, Altza Porru talde zornotzarraren erromeriagaz (22:00). Uztailaren 25ean txistularien, dantzarien eta agintarien kalejira (10:30), meza eta Santiagoren irudiaren prozesioa (11:00), erregelak (18:00), Gautxori elektrotzaranga (19:30) eta Kilikiren kontzertua egongo dira (23:00). Biharamunean, tortilla txapelketak ipiniko ditu gatzeta eta piperra (18:00), baita Berriztu taldearen erromeriak ere (22:00).

Ekitaldiek segida izango dute uztailaren 27an, 28an, 29an, 30ean eta 31n. Programazio osoa eta ordutegiak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.

Bakailao txapelketa, antzerkia eta rocka Goierriko jaietan

E.H. ZALDIBAR

Herriko jaietan makina bat parranda egin eta gero, Zaldibarren ekitaldi gehiago izango dute jai egarria asetzeko. Asteburu honetan jaiak ospatuko dituzte Goierri auzoan. Donien Atxa gaur jasoko dute, 19:00etan, eta atzetik etorriko dira sardina-jana, Basatxerriko pintxoak (20:00) eta rock-rap jaialdia (21:00). Zapatuan bakailako eta paella txapelketak (11:30), antzerkia (18:00), buruhandiak eta erromeria (21:00) egongo dira. Domekan Bizkaiko bolo txapelketaren (12:30), asto proben eta umeentzako jolasen (18:00) txanda izango da. Egitaraua anboto.org atarian kontsultatu daiteke.

Turismo Bulegoa udaletxearen albora aldatu dute Otxandion

A.B. OTXANDIO

Turismo Bulegoa lekuz aldatu dute Otxandion. Plazako informazio puntua kendu, eta, aurretik, udaletxearen alboko eraikinean egokitutako lokalean eskainiko zaie zerbitzua otxandiarrei eta bertaratzen diren bisitariei. Kokapen berriagaz, udal arduradunek "arreta erosoagoa eta egokiagoa" eskaintzea dute helburu.

Turismo Bulegoa uztailaren abuztuaren egongo da zabalik. Eguazten eta eguenetan 10:00etatik 12:00etara eskainiko du zerbitzua, eta barikuetan 17:30etik 20:30era. Zapatu-domeketan 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik.

Otxandioko kale eta bazterretan jai giroa lehertuko da gaur

A.B. OTXANDIO

Otxandiarrak prest daude santamañei harrera beroa egiteko. Gaur iluntzean lehertuko da jai giroa herriko kale eta bazterretan, hezkuntza komunitateak jaurtiriko txupinazoagaz batera. Aurretik *Salve Regina* abestuko dute Oihandi abesbatzagaz batera. Uztailaren 26ra bitartean, Otxandion askotariko ekitaldiak egongo dira jaiez gozatzeko.

Aurten 50 urte bete dira Otxandion euskaraz irakasten hasi zirela. Lurdes Bengoa, Miren Campo, Lurdes Uribarri, Amaia Lasuen, Jon Larrinaga eta Mari Tere Larrinaga bidea hasi zuen Andresa Landa ikastolako irakasle izan ziren. Bada, haiek

izango dute jaietako pregoia botatzeko ardura. Eurekin batera, Mainondo eskolako zuzendaritzakoak, guraso elkartekoak eta eskola kontseilukoak igoko dira udaletxeko balkoira, elkarregaz santamañei hasiera emateko. Jarraian, danborrada hasiko da. Eguna borobiltzeko, erromeria egongo da plazan, Altza Porru taldeagaz.

Musika eta pilota partiduak

Asteburuari begira, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da Otxandion. Udal Musika Bandaren emanaldia eta Urdu-ri dantza taldearen saioa ikusteko aukera izango da, zapatuan. Gau giroa Gozategi taldeak be-



Otxandioko danborradaren irudi bat.

rotuko du. Bestalde, domeka arratsaldean profesionalen pilota partiduak jokatuko dira. Goizean herriko umeen partiduak jokatuko dira, Iluntxo pilota elkartek antolatuta. Gauean Korrontzi igoko da oholtzara.



www.anboto.org

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA
4 SARI

**DURANGALDETIK
KANPOKO
ARGAZKIAK**



**DURANGALDEKO
ARGAZKIAK**

EPAIMAHAIAREN
SARIA
SMARTBOX BAT

ARGAZKI
BOZKATUENAREN
SARIA
**XIAOMI
SMARTWATCH
BAT**


**PARTE
HARTU**

EPAIMAHAIAREN
SARIA
**ERRIGORAKO
OTZARA BAT**

ARGAZKI
BOZKATUENAREN
SARIA
**HARIRIK
GABEKO SONY
ENTZUNGAILUAK**

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

OPORRETARA GOAZ,
IRAILEAN BUELTATUKO
GARA ZOZKETA ETA
SARI GEHIAGOREKINEGIN ZAITEZ
ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!UZTAILEKO
IRABAZLEAK**Aukan Izoziak**
Joseba Elorriaga Echevarria**Basa take away**
Esti Arrizabalaga Agirre**Xiberu taberna**
Gontzal Sarrigoitia Oregi
Gema Derteano Sarraoa**Areatza bainuetxea**
Unai Esturo Uribelarrea**EME elkarteko kideek jaurtiko dute
Ferixa Nausikoetako txupinazoa**

Merkatari elkarteak 25 urte bete ditu aurten, eta, urteurrena ospatzeko, egitarauaren ginga jaietako hasieran ipiniko dute



Joan zen eguaztenean jaien aurkezpena egin zuten.

J.D. ELORRIO

Merkatarien urtea da aurten Elorrioren. EME elkarteak mende laurdena bete duela eta, hainbat ekintza antolatu dute. Eta egitarau horren puntu nagusietariko bat jaietako txupinazoa jaurtitzea izango da. "Oso

pozik gaude jaietan pregoia irakurriko dugulako. Aurten gure urtea da", azaldu du Izaskun Agirre EMEko kideak jaien aurkezpeneko prentsaurrekoan.

Udal ordezkarien esanetan, denerik izango da jaietan. Irailaren 4tik 13ra bitarteko egi-

taraua prest dute, udako oporren aurretik lan guztiak eginda uzteko. Adin guztietarako ekitaldiak izango dira. Ume eta familientzako 26 ekintza antolatu dituzte. Nerabeek ere izango dute zertaz gozatu Zintzilik emozioen laborategiagaz.

Musika talde ezagunak izango dira Elorrioko oholtza gainean. Besteak beste, Los Zopilotes Txirriaos, Kaparrak, Maruxak eta Xabi Aburruzaga izango dira Ferixa Nausikoetan.

Jaietako berrikuntzei dagokienez, Itxaso Basauri zinegotziak aurreratu du txosnaguneak kokapen berria izango duela: "Bokaten txosna Buzkantz kalean egongo da eta karpa azpiko txosnak zein haietan egingo diren kontzertuak Ganondoko sarreran izango dira". Bestalde, karrozen jaitsierak ibilbide berria izango du; Aldatsekua-tik abiatu, herriko plazatik igaro eta San Pio, Errebonbilo eta Erreka kaletik berriro plazaraino helduko da. Karrozen desfilean eta kuadrillen jolasetan parte hartu gura dutenek programan agertzen diren QR kodeen bitartez eman ahal izango dute izena.

Bestalde, Juan Luis Pulido madrildarrak irabazi du aurtengo jaietako kartel lehiaketa eta ANBOTOk urtero ematen duen saria jaso du. Elorriora kanpotik doazenentzako autobusari dagokionez, zerbitzua indartu egingo dutela aurreratu dute.

**Elorrioren Kurutziagako gurutzea
zaharberritzeko lanak hasi dituzte****J.D. ELORRIO**

Elorrioko Udal Kurutziagako gurutzea zaharberritzen hasi da asteon. Esku-hartzeak 28.329 euroko aurrekontua izango du eta haren helburua 1522. urteko hareharritzko gurutzea zaharberritzea eta etorkizunerako kontserbazioa bermatzea da, udalak ohar batean azaldu duenez. Lanek hiru-lau aste iraitea aurreikusitako dute. Udalaren esanetan, lanek "ez dute inolako eraginik izango trafikoa, eta errepidean ez da oztoporik izango obrek irauten duten bitartean".

2023an Elorrioko baliabide turistikoaren egoerari buruz egingo dako ikuskapenaren ondoren, udalerriko hainbat gurutzek

zaharberritze-lanak behar zituela ondorioztatu zen. Santa Ana-k gurutzearen lehentasunezko esku-hartzea egin zen 2024an, haren egoera eta balio historikoa zirela eta; eta iaz Txanberiko gurutzea zaharberritu zuten. Ildo horretan, aurten Kurutziagako gurutzea zaharberritzeari eman diote lehentasuna.

Ondare babes berezia

Elorrioko gurutzeen multzoak Euskal Autonomia Erkidegoan inbentariatutako gurutzeen %10 inguru biltzen ditu. Horien artean, Kurutziagako gurutzea da zaharrena eta garrantzitsuenak. Estilo hispano-flandestarra da, 1522ko inskripzioa dauka,



Kurutziagako gurutzea.

eta lehen mailako ondare-babes berezia duen udalerriko elementu arkitektoniko bakarra da. "Hori dela eta, haren kontserbazioa nahitaezkoa da", azaldu du udalak.

Irisgarritasuna hobetu dute Mallabiko Learreta Markina eskolan



Learreta Markina argazkia.

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Learreta Markina eskolak aurrerapauso garrantzitsua eman berri du irisgarritasunari dagokionez. Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, erai-kinaren ekialdeko eta mende-baldeko eskaileretan plataforma jasogailuak instalatu dituzte, goiko solairurako sarbidea errazteko. "Instalazio berri honek, ikastetxeko espazio guztiak ge-roago eta irisgarriagoak izango dira ikasle, irakasle eta gaine-rako erabiltzaileentzat", azaldu dute Mallabiko Udaleko kideek sare sozialetan.

Santa Maña eguna ospatuko dute Arriandi auzoan, Iurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Arriandi auzoan egun handia izango dute zapatuan. Santa Maña eguna ospatuko dute, eta, horretarako, jai batzordeak hainbat ekitaldi anto-latu du. Santa Maña basilizan izango den mezagaz abiatuko dute eguna, 11:30ean. Ondoren, usadioari eutsita, tortillak, go-zokiak, kangrejoak eta edaria banatuko dituzte. Santa Maña-ko 46. tortilla txapelketa ere egingo dute goizean zehar. Jai batzordeak tortilla egiteko osa-gaiak eta ikatza ipiniko ditu, eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Aldi berean, 40. igel txapelketa ha-siko da (3 euro). Arratsaldean Amezketako es-kola inguruan izango dira ek-italdiak. 18:00etan 57. briska txapelketa hasiko da. Bikoteko 10 euro ordaindu beharko dira. Eguna borobiltzeko, umentzako jolasak egongo dira, 19:00etan. Etxeko txikienek egur jolasekin aritzeko aukera izango dute.

Abadiñoko Udalak HAP0a behin betiko onartu gura du legeintzaldi honetan

Legeintzaldiko Agendako "174 konpromisoen %64,4 ia beteta" daudela diote

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak legeintzaldi-ko hiru urteen balantzea egin zuen joan zen astean. Udaleko kideek azaldu zuten, udalaren antolamendua indartzea, admi-nistrazioa herritarrengana hur-biltzea eta proiektu estrategikoak martxan ipintzea izan da helbu-rua udalerriko erronka nagusie-netako batzuei erantzun ahal izateko. Bertan jakinarazi zuten, Legeintzaldiko Agendan jasota-ko 174 konpromisoen %64,4 bete dituzte edo ia amaitzeaz dituzte, %22,4 bideratuta dituzte eta %13,2 hasteko zain daude. Horiez gai-nera, hasieran Legeintzaldiko Agendan aurreikusita ez zeuden beste 41 jarduera ere garatu di-tuztela esan zuten.

Aurrera begira, esku artean "erronka garrantzitsuak" dituzte-la zehaztu zuten. Horien artean dituzte Hiri Antolamendurako

Plan Orokorraren tramitazioa, adinekoentzako egoitza, Egune-ko Arreta Zentroa eta Atxarteko ha-rrobiak berreskuratzea, besteak beste. "HAP0a, esaterako, lege-intzaldi honetan behin betiko onartzea gustatuko litzaiguke.

Gaur egungo arau subsidiarioak 1989koak dira, oso urruti daude gaur egungo errealitatetik", gehi-tu du Urrutiak. Amaitzeko, herri atseginagoa, irisgarriagoa eta seguruagoa lortzeko lanean jarrai-tuko dutela esan zuten.



Naiara Bildosola, Mikel Urrutia eta Edurne Maguregi.

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE JAIK 2026

Abuztuak 5, eguaztena

20:00 Donien Atxa jasotzea eta txapligu hotsez jalei hasiera ematea.

20:30 Erromeria Ansozregi eta Larrañagagaz.

21:00 Erromeria afaria. Entsalada bertako produktu ekologikoekin (eusko labeleko oilasko izterrak, piperrak eta postrea). Edaria eta kafea. Afaltzarren artean, tokiko produktuekin osatutako poltsa bat zozkatuko da.

Afaloztean erromeriak jarraipena izango du gaurdina arte. Erromeria amaitzerakoan, txokolate gozoa banatuko da.

Afaria 12 euro izango da eta txartela aurretiaz erosi beharko da 626 945 623 telefonora deituta.

Abuztuak 6, eguna SALBADORE EGUNA

12:00 Meza.

Meza amaieran loreak bedeinkatuko dira. Mezara doazenean lore bana hartu ahal izango dute. Agertu gura duten guztiekin, familia argazkia aterako da ermitan.

Ondoren Hamabi Harri taldeko ezpatadantzariak eta irlandar. Gero, Salbadore egunean ohikoa denez, aurrekoa eta atzeskua dantzatuko dute saioa amaitzeko.

Ordu bata aldera

Goizean zehar

Paela txapelketa. Hauek dira sariak:

1. 75 euro eta Eusko Labeleko otzara.
2. 50 euro eta gazta bat.
3. 25euro eta gazta bat.

Parte hartzaileen artean, tokiko produktuekin osatutako poltsa bat zozkatuko da.

13:00 Igel txapelketa. Hauek dira sariak:

1. 30 euro.
2. 15 euro.
3. 10 euro.

Parte hartzeko ekarpena 10.

17:00 Briska txapelketa. Sariak:

1. 120 euro, garaikurrak eta botila bi olio.
2. 80 euro, garaikurrak eta botila bi olio.
3. 50 euro eta botila bi olio.
4. 30 euro eta botila bi olio.

Bikoteek 10 euro ordainduko dute parte hartzeko.

20:30 Mexikar erromeria, Txubidin Ibañez eta Los Charros taldeagaz.

22:30 Inurletik sona handiko artista: Luziano. Dja (gizon orkestra).

Abuztuak 7, barikua

17:00 Mus txapelketa. Hauek dira sariak:

1. 150 euro, txapelak eta botila bi olio.
2. 100 euro, garaikurrak eta botila bi olio.
3. 50 euro eta botila bi olio.
4. 40 euro eta botila bi olio.

Parte hartzeko, bikoteko 12euro.

19:00 Umeen jolasak.

21:00 Afaria. Eusko labelekin hanburgesa, postrea eta kafea.

Afaria 12 euro izango da. Txartela aurretiaz erosi behar da. Afaltzarren artean tokiko produktuekin osatutako poltsa bat zozkatuko da. Txartela erosteko, deitu 626 945 623 telefonora.

22:30 Euskal erromeria, Atxa Porru taldeagaz.

Abuztuak 8, zapatua

19:00 Tortilla txapelketa. Hauek dira sariak:

1. 50 euro, gazta, zartagina
2. eta botila bat olio.
3. 40 euro eta botila bi olio.
4. 20 euro eta botila bi olio.

Parteide guztien artean tokiko produktuekin osatutako poltsa bat zozkatuko da.

Izen ematea 18:00etatik aurrera egin ahal izango da. Tortillak 20:00etarako aurkeztu behar dira.

21:00 Erromeria Luhartz taldeagaz.

22:30 Bertso saioa:

- Amets Arzallus.
- Andoni Egaña.
- Nerea Ibarzabal.
- Maialen Lujanbio.

Gai jartzaileak: Maite Berriozabal.

00:30 Erromeria Luhartz taldeagaz.

Gora Salbadore jaiak 2026!!!

ETXE LAGUNTZAILEAK

ABADIÑOKO UDALA, EREÑA erretegia, ETXETXO higiezin enpresa, **SERAFIN** tailerrak, **EDURNE** arrandegia, **EUSKO LABEL**, **MURUETA BASERRIA** nekazaritza turismoa, **SERRATU** itxiturak eta **BAQUE** kafeak.

OHARRAK:

- Aurten ere jaien aldeko errifa egongo da salgai jaietako txosnan. Errifaren zozketa abuztuaren 8an egingo da, jaien amaieran. Sariak eskuratzeko epea irailaren 23an amaituko da.
- 2026ko Hamabi Harriren kamisetak salgai egongo dira jaigunean.
- Jai batzordea ez da jaietan gertatu daitezkeen ezbeharren erantzule egingo.

ANTOLATZAILEA:

Gerediaga auzoko jai batzordea.



MAÑARIKO JAIK 2026



**MAÑARIK
JAIK**

2026



**Abuztuak
14, 15 eta 16**

MAÑARIKO JAIK 2026

ABUZZTUAK 14

- **12:30** Pitxitxiren harrera Iturrietako ur deposituan.
- **Momentua** girozten herriko trikitilariak egongo dira.
- **13:00** Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera.
- **TXUPINAZOA** Andramari dantza eta kultur elkarte.
- **14:00** Herri bazkaria.
- **OSTEAN:** Igel eta mus txapelketa.
- **16:00** Egurrezko jolasak.
- **22:30** Kontzertuak
 - *Marte Lasarte*
 - *La Txama*
 - *Xaukena Xauk*
- **4:00-6:00** Bitartean autobusa ibiliko da etengabe Mañaritik Durangora. Doan.

ABUZZTUAK 15

ANDRA MARI EGUNA

- **10:00** Kalejira txistulariekin.
- **11:00** Meza Kirikiño abesbatzagaz. Ondoren: Dantzariak.
- **12:30** Pilota Partiduak. 4 ½ ko partidua: Xabi Alberdi VS Niko Ortiz. Binakako partidua: Iker

Egiguren – Aingeru Bernaola VS Ekhi Irribarria – Manex Balerdi.

- **12:30** Puzgarriak haurrentzat.
- **17:00** Karabina tiroa (Ateneo Cinegetico Mugarrak antolatuta).
- **18:00** Punpairez.
- **20:30** Luntxa.
- **22:00** Anje Duhalde.

ABUZZTUAK 16

SAN ROKE EGUNA

MOZORRO EGUNA.

GAIA: ETB3:
MARRAZKI BIZIDUNAK

- **11:00** Meza. Ondoren: Dantzariak.
- **12:00** Paella txapelketa.
- **14:30** Paellak aurkeztu eta sari banaketa.
- **OSTEAN:** Bingo musikatua.
- **18:00** Briska Txapelketa (Errose Bustintza kultur etxean).
- **19:00** Burrumba elektrotxaranga.
- **22:00** Pitxitxiren agurra. Plazan dantzariak eta koplak abestea.
- **22:30** Altxa Porru erromeria.



IAZKO TXUPINA.

MAÑARIA Abuztuaren 14an hasiko dituzte jaiak, Pitxitxi Iturrietako ur deposituan batu eta herrira eramanda. Trikitilariak izango dituzte lagun. Txupinazoa 13:00etan izango da, eta gero herri bazkaria izango dute, herriko jaiak hasi dituztela ospatzeko.



ANJE DUHALDE

ANJE DUHALDE Errobi taldearen sortzailea eta euskarazko rockaren aitzindarietakoa, aurkezpen gutxi behar du Anje Duhaldek. 1970eko hamarkadan hasi eta gaur egunera arteko ibilbidearen errepasoa egingo du Mañariko plazan, abuztuaren 15ean, 22:00etan.

ALBAÑILERIA Y CONSTRUCCIONES MOU S.L.

MOU

ERA GUZTIETAKO LANAK EGITEN DITUGU
GREMIOEN KOORDINAZIOA

construccionesmou@gmail.com
Tel.: 672 441 607



GARATE

Mañondo
Baserria, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza

URANGA
BASERRIKO OGIA



MANARIA
635 740 236

A. M. MAÑARIA

Aste batzuk falta dira Mañariko jaiak hasteko, eta dagoeneko motorrak martxan ipini dituzte. Egitaraua prest dute eta Andra Mari dantza taldeak botako du txupinazoa. Taldea orain lau hamarkada osatu zuten, 1986an, inguruko beste herri batzuetan taldeak zeudela ikusi eta herrian hutsune hori betetzeko asmoagaz. Abadetxeko lokal batean egin-dako lehenengo entsegura 40 bat neska-mutiko joan ziren, eta, urtebeteko behararen ondoren, Andra Mari egunean, lau-bost taldek dantzan egin zuten. Gero, herriko ermitetako jaietan ere aritu ziren, eta herririk herri ere bai, Euskal Jaietan, esaterako. Taldea herritarren babesari eta jende askoren lanari eskerrak heldu da gaur egunera. Maiatzean, Jaizale taldeak lagunduta, egun guztiko jaia egin zuten urteurren hori gogoratzeko eta ospatzeko.

Jaietako lehenengo egunean, abuztuaren 14an, Pitxitxi Iturrietako ur deposituan batu eta gero plazara eramango dute txupinazorako, trikitilariak lagunduta. Txupinazoa 13:00etan izango da. 14:30ean herri bazkaria egingo dute, eta jarraian igel



Andra Mari dantza taldeak urteurrenean ateratako familia argazkia.

Andra Mari dantza taldeak botako du txupinazioa, euren 40. urteurrena borobiltzeko

Besteak beste, La Txamak, Marte Lasartek eta Anje Duhaldek kontzertua emango dute

eta mus txapelketak egongo dira; baita egurrezko jolasak ere, gura dutenentzat. Jaietako lehenengo egun horretan autobusak etenik barik ibiliko dira Mañaritik Durangora, 04:00etatik 06:00etara bitartean.

Kontzertuak

Jaietan musika eskaintza zabalera ere egongo da. Jaietako lehenengo egunean, Marte Lasarte, La Txama eta Xaukena Xauk taldeek kontzertua emanango dute Mañarian. Marte La-

sarte Skakeitan taldeko Borja Anton eta Pello Armendariz kideen proiektu berria da; Belakoko Lore Nekane Billelabeitia eta Alex Alonso (ETS, Gari & Maldanbera) musikariak batu zitzaizkien proiektura

gero. La Txamakoak ere eza-gunak dira musikaren munduan, eta euren alderik parranderoena erakusten dute *corrido tumbado* doinuak oinarri dituen proiektu honetan. Biharamunean, Anje Duhalderen txanda izango da. Duhalde euskal rockaren aitzindarietakoa da, Errobi taldearen sortzaileetarikoa bat, eta zale ugari batzen du Durangaldera etortzen den bakoitzean.

San Roke egunagaz borobilduko dituzte Mañariko jaiak. Mozorro eguna ospatuko dute egun horretan, eta jai batzordeak marrazki bizidunetako moztorroak jantztea proposatu du. Urtero legez, San Roke egunean paella txapelketa egingo dute; paellak 14:30erako egon behar dute prest. Bazkaria sari banaketaren ondoren izango da. Bazkalostean bingo musikatua izango dute. Burrumba elektrotzarangak dantzan ipiniko ditu kalean daudenak. 22:00etan, datorren urteko jaietara arte agurtuko dute Pitxitxi. Baina festa ez da hor amaituko. Giroak eta dantzak goizalera arte eutsiko diete, Altxa Porruren erromeriagaz.

HONTZA MUSEOA FUNDAZIOA
Natur Zientzien Museoa

ZATOK MUSEOA EZAGUTZERA!

Ebaristo Bustintza Kirikiño 18
48212 MAÑARIA | BIZKAIA
www.hontzamusoea.eus

@hontzamusoea

MAÑARIA HERRIKO DENDA
Ebaristo Bustintza Kirikiño, 9
Mañaria- 48212
Tel.: 611 57 0213

Astelehenetik barikura: 08:30 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Zapatuetan: 08:30 - 14:00

Gaztelu
CARPINTERIA

656 787 524
699 229 576

herriko taska
HERRIKO TASKA
mañaria

Udaletxeko Plaza, 1
Tel.: 944 351 262

Construcciones AMANTEGUI, S.L.
amanteguiconstrucciones@gmail.com

E.B. Kirikiño kalea, 21 · MAÑARIA
Tel.: 679 730 244

ARRI TOKI TABERNA

Mañaria
94 681 69 30

Maderas Zugazagoitia y Agirre S.L.

Aldegoiena Auzoa, 2 -A
MAÑARIA
Tel/Faxa: 94 681 87 98
zuagi@hotmail.com



MALLABIKO JAIK 2026



Andra Mari
ABUZTUAK
14 - 16 **Jaiak**

2026



Mallabia

MALLABIKO JAIK 2026

ABUZZUAK 14

UMEEU EGUNA

- **11:30-13:00** Mallabiko trikitilariak kaleak girotzen.
- **12:00-14:00 / 16:00-18:00** Umeentzako haur parkea herriko frontoian eta parkean. (Euria bada CIP-eko futbito zelaian)
- **18:00** Apar festa parkean.
- **19:00** JaieU hasierako txupinazoa udaletzeko balkoitik, Berbalagun: Joskintza tailerraren eskutik.
- **ONDOREN**, kale animazioa Me vale madre taldeagaz.
- **19:30** Txokolatada plazan, euria bada parkeko aterpean.
- **21:30** Pilota partidukoak Mallabia I Kirol Etxean. Zubizarreta III – Morgaetxebarria // Rekalde – Aldabe Elordi – Mariezkurrena edo Albisu // Zabala – Imaz. Pilota partidurako sarrerak: abuztuaren 3tik 13ra salgai udaletxean 18€. Langabe, ikasle, jubilatu eta pentsionistentzat 12€ justifikazio txartela erakutsita. Partidu egunean lehiatila 21:00etan zabalduko da eta sarrerek prezio bakarria izango dute, 25€.
- **23:00** Erromeria Laprast taldeagaz plazan.

ABUZZUAK 15

ANDRA MARI EGUNA

- **11:00** Meza Jasokunde parrokian.
- **12:30** Mallabiko dantzariak herriko frontoian.

Ondoren 'Mute' zirku-antzerkia herriko frontoian.

- **13:00-15:00** Erromeria ibiltaria EinGO taldeagaz.
- **17:00** Tute txapelketa Kontzejuzarrean. Izen ematea: 10 euro bikoteko. Sariak: 1. saria 120€ eta garaikurra / 2. saria 100 € / 3. saria 80€ / 4. saria 60€.
- **17:00** Mallabiko Gizonezkoen XXXVI. eta Emakumezkoen VI. harri-jasotze saria Harri Txikia herriko frontoian. Gizonezkoak 100kg-ko zilindro zaharra / 100kg-ko bola. Emakumezkoak 62,5kg-ko zilindro zaharra / 62,5kg-ko bola. Parte-hartzaileak: Emakumezkoak. Nafarroa/ Ane Zestau (Barañain). Bizkaia/ Leire Olea (Gernika)/Ziara Zabala (Gernika). Gipuzkoa/Malen Morandeira (Aia). Gizonezkoak. Nafarroa / Hodei Amezkua (Etxebakoitz). Gipuzkoa /Mikel Lopetegi (Urra) (Zarautz)/ Xuban Zumeta (Zarautz). Bizkaia/Gari Elorriaga (Gernika)/Unai Osa (Ondarroa)/ Eneko Bilbao (Kortezubi)/Jon Gisasola (Zelaiu) (Mallabia)/ Aritz Abendibar (Bengo) (Mallabia)/Segovia/Miguel Angel Palomar (Segovia)/ Avila/Petre Bulgarea (Palacios De Goda). SARIAK: 1. saria 900€ garaikurra eta txapela / 2. saria 750€ eta garaikurra / 3. saria 600€ eta garaikurra / 4. saria 500€. Gainerako parte hartzaileentzat 300€-ko dieta.
- **19:30** Ez da kasualitatea bertso saio musikatu plazaU, euria



MALLABIA. Paella eta marmitako lehiaketak. Plazan, 11:00-14:00.

bada elizpean. **Bertsolariak:** Aner Peritz, Ane Labaka, Miren Amuriza eta Aritz Katarain. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Musikariak: Aritz Bizkai eta Oihana Landa

- **22:30** Olatz Salvador parkean.

ABUZZUAK 16

SAN ROKE EGUNA

- **12:00** Meza Jasokunde parrokian.
- **11:00-14:00** Paella eta Marmitako lehiaketak plazan. Izen ematea 11:30ean. XXV. Paella Lehiaketa eta XIII. Marmitako Lehiaketa. Oinarriak:

Ez dago paella edo marmitakoa egiteko derrigorrezko osagairik. Marmitakoa 13:00etarako aurkeztu behar da eta paella 13:30erako, epaimahaiak dastatu eta sariak banatzeko. Talde bakoitzak bere sua ekarri beharko du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurrean egin. Lehiaketa herriko plazan egingo da. Bazkarirako plater, edalontzi eta kubiertoak parte-hartzaileek ekarri beharko dituzte. Sariak: Marmitakoa: 1.saria 110€ / 2. saria 55€ / Paella: 1. saria 110€ / 2. saria 55€.

Mallabiko Trikitilariak animatuko dute giroa.

- **14:00** Paella eta marmitako lehiaketako sariak banatzea.
- **14:15** Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrean.
- **16:00** Iñaki Basabe jubilatuentzat Kontzejuzarrean.
- **17:30** Kuadrillen arteko jolasak Gazte Asanbladakoek antolatuta. Saria: pintxotarako 20 txartel.
- **20:00** Txerri erreka (pintxo bat,euro 1) eta sagardoa doan plazan.
- **20:30** Erromeria Luhartz taldeagaz plazan.
- Ondoren DJ Bull plazan.



- Bajak izapidetzea.
- Garabien zerbitzuko bilketak.
- Eusko Jaurilaritzako KUDEATZAILE BAIMENDUA.
- Gehieneko tasazioa duten autoen salerosketa.
- Balio-bizitzaren amaieran deskutsatzeko tratamendua eta ibilgailuen kudeaketa.
- Garabi zerbitzua 24 orduan, Euskal Herrian eta inguruetan.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

Mallabarrena poligonoa, 10-12 - 48269 Mallabia
664 563 291 - 632 812 666



BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38
Tel: 943 170 307 - Faxa: 943 176 160
info@betearte.com www.betearte.com

A. M. MALLABIA

Abuztuaren 14tik 16ra bitartean, Andra Mari jaiak ospatuko dituzte Mallabian. Aurtengoan ere, musikak tarte berezia izango du. Herriko trikitilariak emango diete hasiera jaiei, 11:30ean. Ordu horretan, umeentzako haur parkea egongo da frontoian. Ofizialki, andramariak 19:00etan hasiko dira, Berbalagun ekimeneko joskintza tailerreko kideek irakurriko duten pregoiagaz. Ondoren, Me Vale Madre taldeak kaleak girotuko ditu. 23:00etan erromeria doinuak nagusituko dira, Laprast taldearen eskutik.

Andra Mari egunerako, haur zein adinekoentzako moduko eskaintza egongo da. Besteak beste, *Mute* zirku-antzerki ikuskizuna eta EinGO taldeagaz erromeria ibiltaria. 17:00etan tute txapelketa jokatu da Kontzejuzarrean. Iluntzean, 19:30ean, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua egongo da; Aner Peritz, Ane Labaka, Miren Amuriza eta Araitx Katarain bertsolariak, Maite Berriozabal gai jartzaileak eta Araitx Bizkai eta Oihana Landa musikariak parte hartuko dute. Eguna borobil-



Olatz Salvador. AIRAKA

Olatz Salvador musikaria eta Luhartz eta EinGO erromeriak Mallabiko jaietan

Andra Mari jaiak abuztuaren 14tik 16ra bitartean ospatuko dituzte Mallabian

tzeko, Olatz Salvadorrek kontzertua emango du parkean. San Roke egunean marmitako eta paella txapelketak egingo dituzte, eta arratsaldean kuadrillen arteko jolasak, Gazte Asanbladako kideek antolatuta. Gauean,

Luhartz taldeak eta DJ Bull musika jartzaileak dantzan ipiniko dituzte mallabitarrek.

Pilota eta herri kirolak

Urtero legez, jaietako beste protagonistetariko bat kirol ekital-

diak izango dira. Abuztuaren 14an pilota partiduak egongo dira Mallabia I Kirol Etxean; Zubizarreta III.ak eta Morgaetxebarriak Rekalderen eta Aldaberen aurka jokatu dute, eta, ondoren, Elordi eta Mariez-

kurrena (edo Albisu) bikoteak Zabala eta Imaz bikotearen aurka jokatu du; partiduak 21:30ean hasiko dira. Pilota gaurako sarrerak abuztuaren 3tik 13ra egongo dira salgai udal-etxean, 18 euroan (langabe, ikasle, jubilatu eta pentsiodunek 12 euroan erosi ditzakete, justifikazio txartela erakutsita); sarrerarik geratuko balitz, partiduaren egunean bertan salduko lirateke, 25 euroan.

Biharamunean, Mallabiko gizonzkoen XXXVI. eta emakumezkoen VI. harri jasotze saria jokatu dute Harri Txikia herriko frontoian; gizonzkoek 100 kiloko zilindro zaharra eta pisu bereko bola altxatu dituzte, eta emakumezkoek 62,5 kiloko zilindro zaharra eta pisu bereko bola. Probak 17:00etan hasiko dira eta irabazleek 900 euro eta txapela eramango dituzte. Emakumeetan Ane Zestau nafarra, Leire Olea eta Ziara Zabala gertikarrak eta Malen Morandeira gipuzkoarra lehiatuko dira. Eta gizonetan Hodei Amezkua, Mikel Lopetegi 'Urria', Xuban Zumeta, Gari Elorriaga, Unai Osa, Eneko Bilbao, Aritz Abendibar 'Bengo' eta Jon Gisasola 'Zelai IV.a'.



**Industrias
FOCS, S.L.**

DISEÑO Y FABRICACIÓN DE
TROQUELES DE CORTE FINO
Y PROGRESIVOS

MECANIZADO DE PRECISIÓN
BAJO PLANO

EROSIÓN POR HILO Y
PENETRACIÓN DE ALTA PRECISIÓN



Pol. Goitondo - Goikoa, s/n 48269 MALLABIA
Tel.: 943 171 744 • focs@focs.es • www.focs.es

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola



Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

Maymu

SAT, RETROFIT ETA
AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALA

Pol. Ind. Goitondo Behekoa
Vzves 3 y 4 - 48269 Mallabia (Bizkaia)
T. (+34) 94 657 00 94
maymusl.com

**Excavaciones
BOLIÑA**
Mallabia - Bizkaia

• 629 340 410 •
• 618 954 280 •

excavacionesbolina@hotmail.es

ZELAI

Marmol eta granitozko oraiagarriak
Hilernetako lanak



MALLABIA
689 06 45 41
zelai@otxitxe.net



RHEYDE
lanabesak s.l.

PERFILATUAK - MOLDAKETAK - BERRESKURATZEAK

P.I. Goitondo, p.3 - 48269 MALLABIA • PK 184 - 48260 ERMUA
Tel.: 943 170 898 • Faxe 943 170 900 • rheyde@rheyde.com



Joskinak, ikasturteko azken saioan.



Joskinak, azokan.

"Jaietako pregoia irakurtzea gure lanari egindako aitortza legez hartu dugu"

BERBALAGUNEN JOSKIN TALDEA

Astean behin bi orduz batzen dira Mallabian, josten duten bitartean euskaraz berba egiteko; aurtengo jaiei hasiera emateko pregoia irakurriko dute

Aritz Maldonado MALLABIA

ANBOTOk jostintza ikasturteko azkeneko saioa amaitzeaz dela harapatu ditu Maria Jose Ramos Garcia, Maria Angeles Carrillo Lopez, Eneritz Uberuaga Aranburu eta Naia Unamuno Mirandona. Hirugarren ikasturtea dute Mallabian, Berbalagun ekimenaren barruko jostintza tailerren, eta aurtengo ikasturteagaz bereziki pozik daudela nabarmendu dute. Mallabiko Azokan proiektua jendaurrean ezagutarazteaz gainera, Korrika igarozenean ere parte hartu zuten,

petoak josten. Horrez gainera, aurtengo Andra Mari jaiei hasiera emateko pregoia irakurriko dute.

Pozik zaudete pregoia irakurtzeko proposamenagaz?

"Pentsatu ere ez genuen egin inoiz horrelakorik proposatuko zigutenik"

Naia Unamuno Mirandona: Pentsatu ere ez genuen egin inoiz horrelakorik proposatuko zigutenik. Eta, beharbada, azokan parte hartuko ez bagenu ez ziguten proposamena egingo. Aurten hainbat erakusleihat egon gara, eta hor ikusiko gintuzten. **Eneritz Uberuaga Aranburu:** Berbalaguneko talderik mediatikoena bihurtu gara! (barrez). **Pentsatu duzue zer esan?**

Maria Angeles Carrillo Lopez: Sekretua da!

Mari Jose Ramos Garcia: Zeozer bai, berba egin dugu apur

bat horri buruz. Taldea zer den eta gure oinarriak zeintzuk diren azalduko dugu; arroparen berrerrabilerari buruz berba egingo dugu, bizi berri bat emateaz, euskarari ere bizi berri bat ematen diogun moduan.

M. A. C. L.: Jaiez gozatzeko mezua ere zabalduko dugu!

Modu borobila izango da ikasturtea borobiltzeko.

N. U. M.: Hala da. Eta gure taldea ezagutarazteko ere bai. Aitortza bat da egiten dugun ekarpenari, baina taldera jende gehiago erakartzeko aukera ere bada.

Zer dela eta ekin zenioten jostintza taldeari?

M. J. R. G.: Berbalagunetara joaten nintzen, eta ekintza berriak proposatzeko esan zigutenean jostintza proposatzea pentsatu nuen.

"Arroparen berrerrabilpenaren eta euskararen aldeko mezua zabalduko dugu"

N. U. M.: Astelehenero batzen gara hemen eta bi orduz josten egoten gara euskaraz berba egiten dugun bitartean.

E. U. A.: Denontzat onuragarria da. Mari Josek josten daki eta guri erakusten digu, eta euskaraz berba egiterakoan elkarri laguntzen diogu.

N. U. M.: Taldeak gu elkartzeko ere balio izan du. Batzuek elkar ezagutzen dugu, eskolatik, edo seme-alabak adin beretsukoak ditugulako, baina beste batzuek ez. Belaunaldi desberdinetako jendea gaude, eta honek aukera eman du beste hartu-eman batzuek sortzeko.

M. J. R. G.: Euskarara beste leku batetik hurbiltzeko aukera bat ere bada. Eta, aisialdiagaz lotura duenez, lanagaz beharrean, beste modu batekoa da hartu-eman. Lantokietan ere badago euskara egunerokotasunean, baina modu informal batean sorturiko aukera da hau.

N. U. M.: Bestalde, euskaraz berba egiteaz gainera, taldearen helburuetariko bat arropen berrerrabilpena bultzatzea da. Normalean ez dugu oihalik erosten, etxean ditugunak erabiltzen ditugu beti.



HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN
KUDEATZAILE BAIMENDUA EUX/008/04



HIERROS & METALES
SAINZ

TXATARREN SALEROSKETA

Areitio gaina - 48269 MALLABIA • PK 58 - 48260 ERMUA

Tel.: 943 171 400 - Fax 943 171 489

hierrossainz@hierrossainz.es

www.hierrossainz.es



METALEN BERRESKURAPENA,
BIRZIKLAPENA ETA KUDEAKETA

943 172 810

676 271 507

BURUARI KLIK!



KIMU KUKUKA

GIZAKIA ILARGIRA IRITSI ZEN... ETA HAN GERATU ZEN?

DEYOK DAKIGU ILARGIA ZAPALDU ZUEN LEHEN GIZAKIA NEIL ARMSTRONG IZAN ZELA, ETA HAN UTZI ZITUELA BERE ONKATZAK.

1969

BAINA BESTE NORBAT JOAN ZEN HARAINO... ETA BETIKO GERATU ZEN.

1959

ILARGIAREN AURPEGI EZKUTUAREN LEHEN IRUDIAK.

AURPEGI HURBILA: ILARGI-ITSASO ZENENO LAUTADA ILUN HANDIAK DITU.

ZIENTZIALARI BATEK BERE BIZITZAREN ZATI HANDI BAT ILARGIAREN AURPEGI EZKUTUAREN KRATERAK AZTERTZEN EMAN ZUEN.

1998

EUGENE MERLE SHOEMAKER ASTROGEOLOGIAREN GURASOETAKO BAT IZAN ZEN.


HILTZEAN, BERE ERRAUTSEN ZATI BAT ILARGIRA JOAN ZEN KAPSULA BATEAN, LUNAR PROSPECTOR ZUNDAN.

HORRELA BIHURTU ZEN GORPUZKAK ILARGIAN LURPERATUTA DITUEN LEHEN PERTSONAK ETA BAITA BAKARRERAN ERE.

SHOEMAKER KRATERRA

EZAGUTU GAUZA GEHAGO ILARGIARI BURUZ ZIENTZIA KALEA BLOGEAN.

SUDOKUA



DOMINOA



$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$




$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$

LABIRINTOA



ZORNOTZAKO JAIAK 2026

UZTAILAK 17

- **11:00-14:00/17:00-19:00** Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak Ogenbarrenan. **Euria eginez gero, Gure kirolak frontoian.*
- **13:00** Gazteen kalejira Herritik zehar.
- **15:00** Gazteen arteko bazkaria eta bazkalostea Zelaieta parkean. **Euria eginez gero Amorebieta IV frontoian.*
- **18:00** Kaleko musika Luis Urrengoetxean.
- *Ostikda*
- **19:00** Andra Mari plazan.
- *Salseo jaiak show*
- *DJ Cris Orube & Jess on Decks*
- **20:30** Txistularien XXVI. kontzertua. Artista gonbidatua Iñaki Ortiz de Villalba (Betagarri) Zelaieta parkean.
- **22:30** Kontzertua Zubiondo plazan.
- *Latzen*

UZTAILAK 18

- **10:00** Basket 3x3 Zubiondo parkean.
- **10:30** Marmitako lehiaketa Herritik zehar.
- **11:00** Umeentzako bolo txapelketa Gure Kirolak bolatokian
- **12:30** Zorhontza Ibiltaria Triki Piu eta Areatzako Erraldoiek in Herritik zehar.
- **15:00** Marmitako txapelketa. Sari banaketa. Zubiondo plazan.
- **15:30** DJ Rednal Zubiondo plazan.
- **15:30** Karaoke ibiltaria Zelaieta parkean/Euskal Herria plazan/Harrison parkean.
- **15:30** Disko festa ibiltaria Bayo Show Arraibi plazan/San Juan Klean.
- **15:30** Karaoke ibiltaria sound-4 Ogenbarrenan.
- **18:00** DJ FARDY Gernika plazan.
- **19:00** Kontzertua Zubiondo plazan.
- *Heitxi*
- **21:00** Karmenetako XIV. bolo txapelketa Gure Kirolak bolatokian.
- **21:30** Kontzertua Zubiondo plazan.
- *Eztandap*

- **22:30** Orkestra Zelaieta parkean.
- *En Esenzia*
- **23:30** Kontzertua Zubiondo plazan.
- *Jonkass*

UZTAILAK 19

- **10:00** XLIV. Xake txapelketa. Agustin Zamakona Memoriala Herriko plazan.
- **10:00** Motorren topaketa Gernika plazan.
- **11:00** Amorebieta-Etxanoko XV. Umeen jai lasterketa Zubiondo parkean.
- **11:00** Euskal herriko ardi txakurren txapelketa Jauregibarría parkean.
- **12:00** Zornotzagol. Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa) Larreako Futbol Zelaian.
- **16:00** Gazteen arteko txallengea / Piragua jaitciera Ibaizabal errekan.
- **17:00** Gure Kirolak. Bizikleta Eguna Zubiondo parkean.
- **18:00-21:00** Txiki txef +6 urte Andra Mari plazan.
- **20:00** Kantakatil Kantuan Luis Urrengoetxean.
- **22:00** Kontzertua Zubiondo plazan.
- *Nino Bravori omenaldia*
- *Zornotzako musika banda*
- *Artista gonbidatua: Serafin Zubiri*

UZTAILAK 20

- **16:00** Zornotzagol. Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa) Larreako Futbol Zelaian.
- **17:00-20:00** Ping pong Zezilia Gallartzagoitian.
- **18:30** Mus txapelketa. Zelaieta parkean. *Izena emateko: 18.00*
- **20:00** Antzerkia gazteleraz. "Al fin y al cabo" El Gran Rufus Gernika plazan.
- **Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian.*
- **20:00** Kontzertu akustikoa Zubiondo parkean.
- *Iluntzean*
- **22:00** Zelaieta parkean.
- *Pantx Records*

UZTAILAK 21

- **12:00** Umeentzako tailerra. Perkusioa/Batukada Zelaieta zentroan.
- **13:00** Karropoteoa Herritik zehar, Harrison kaletik abiatuta.
- **15:00** Txosnarien bazkaria Zubiondo parkean.
- **16:00** Zornotzagol. Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa) Larreako Futbol Zelaian.
- **16:30** Kontzertua Zubiondo parkean.
- *Eider eta Alain*
- **17:30** Kontzertua Zubiondo parkean.
- *Piper Txarrak*
- **17:30** Akrobazien erakustaldia eta tailerra. Sergi Sarmiento Serflips Herriko plazan.
- **Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian*
- **19:30** Porrurik Bez, Elektrotxaranga Zubiondo parkean.
- **22:30** Kontzertua Zubiondo parkean.
- *Etxeparra eta Reketabe*

UZTAILAK 22

- **12:00** Umeentzako tailerra. Perkusioa/Batukada Zelaieta zentroan.
- **17:00** Gaztetxo en arteko txallengea 11-15 urte. Herri kirolak Zubiondo plazan.
- **18:00** Gazteen arteko txallengea. Herri Kirolak Zubiondo plazan.
- **22:30** Antzerkia euskaraz. "Kodizia Late Night" Barsanti Herriko plazan.
- **Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian*

UZTAILAK 23

- Barraken prezio berezia
- **11:00-14:00/16:00-18:00** Puzgarriak eta Joko inklusibo eta irisgarriak. Ogenbarrenan.
- **Euria bada Gure Kirolak frontoian.*
- **12:00** Umeentzako tailerra. Perkusioa/batukada Zelaieta zentroan.
- **17:30** Herriko Txapelketaren finalak. (emakumeak eta gizonak) Amorebieta IV. Frontoian.
- **17:30** Gaztetxo en arteko txallengea 11-15 urte. Karaoke lehiaketa Zelaieta parkean.
- **19:30** Gazteen arteko txallengea. Play back lehiaketa Zelaieta parkean.

- **20:00** Dantza Herriko plazan.
- *"IOI" Haatik Dantza*

UZTAILAK 24

- **17:30** Umeen danborrada San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen, Gregorio Mendibil, San Juan, San Miguel, Herriko plazan.
- **19:00** 90eko Hamarkadako musika Gernika plazan.
- *DJ KUL*
- **21:30** Danborrada Ibilbidea: Gudari, Ibaizabal, Nafarroa, San Juan (Jose Antonio Agirreraino), San Miguel, Herriko plaza.
- **23:00** Kontzertua Zubiondo plazan.
- *El Drogas*
- **23:30** Kontzertua Zelaieta parkean.
- *Neomak*

UZTAILAK 25

- **GOIZEAN** Baserritarren Azoka Ibaizabal aparkalekuan **Artisauen Azoka.**
- **AITITE-AMAMEN JAIA** Amorebieta IV frontoia
 - 14:15** Pertsona nagusien bazkaria. Izena emateko: Nafarroa zentroa. Ateen irekiera: 13:45
 - 14:15** Udabarri Dantza Taldea
 - 15:00** Triki Piu
 - 16:00** Dj Koldo
- **10:00** Herritik Zehar Kittu Maratoia, Tabernaz Taberna
 - 10:00 Larrea auzoa
 - 10:40 Gudari kalea
 - 11:00 Zelaieta parkea - Harrison plaza
 - 11:30 Ixer - San Pedro
 - 12:15 Zezilia Gallartzagoitia
 - 13:15 Urbano Larruzea - San Migel
 - 13:30 Gregorio Mendibil - San Juan
 - 14:00 San Migel - Zezilia Gallartzagoitia
 - 14:30 Andra Mari plaza
 - 15:15 Gernika plaza
 - 16:15 Jauregibarría parkea
 - 16:30 Jauregizahar
 - 16:45 Andrandi
 - 17:15 Arraibi plaza - San Juan
 - 17:30 Konbenio plaza - Kalbario plaza
 - 18:00 Sabino Arana
 - 18:30 Zubikurtze - Zubipunte
 - 19:00 Ogenbarrena
 - 20:00 Txiki Otaegi - Luis Urrengoetxea
- **12:00** Musika kalean Zezilia Gallartzagoitia/Abasolo Apezpiku/ Ibaizabal kalean.
- *Triki Piu*

- **16:00** Amorebieta-Etxanoko VIII. Duatloi Txikia Zubiondo parkean.
- **19:00** Euskal Erromeria Zelaieta parkean.
- *Udabarri 60 urte*
- **22:15** Su artifizialak* Jauregibarrían.
- **23:00** Kontzertua Zubiondo plaza
- *Chenoa*
- **23:15** Kontzertua Zelaieta parkean.
- *Ruper Ordorika*

UZTAILAK 26

- **10:00** Kotheen topaketa Ogenbarrenan.
- **11:00** Ontzi-modelismoaren erakustaldia Jauregibarrían.
- **11:00** Arku tiroa Jauregibarrían.
- **11:30-14:00** Txitatoki zirkus Umeentzako zirku azoka ikuskizuna Ogenbarrenan.
- **Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian*
- **18:00** Emakumenezko en elite pilota partiduak Udako Master Laboral Kutxa Torneoa Amorebieta IV frontoian.
- **19:30** Zornotza Aniztasun Kalejira Geldialdiak: Zelaieta parkea, Euskal Herria plaza, Kalbario, herriko plaza. Gonbidatuak: Batabatukada, Elen's River Dixie Band
- **21:00** Bertsolariak Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio Oihana Bartra Sustrai Colina. Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar Bertso Eskola Zelaieta parkean.

UZTAILAK 27 MOZORRO EGUNA HISTORIA

- **12:00** Gaztetxo en arteko txallengea 11-15 urte WIPE OUT Zubiondo plazan. **Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian*
- **18:00** Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada Zelaieta zentroan.
- **19:00** Gazteen txallengeko mozorro desfilea Nafarroa kalea - San Juan kalea - San Miguel kalea - Herriko plaza
- **OSTEAN** Zorhontzaren agurra, umeen batukada, Zornotzako Musika Banda Herriko plazan.
- **21:00** Kaleko musika Euskal Herria plazan.
- *Zo-Zongó 'Rockalean'*
- **21:00** Jaiak txaranga. Herriko plaza - Arraibi plazan.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



OTXANDIOKO JAIK 2026

UZTAILAK 17 TXUPINAZOA

- 11:30 Bertso saioa: Xabier Amuriza eta Iruñe Basagoiti, Nagusien Egoitza.
- 15:00 Herri bazkaria.
- 17:30 Txupina eta taloa txistorragaz, Otxandioko Nagusien Egoitza.
- 18:30 Ohiko 'Salve Regina' abestuko da, Oihandi abesbatzagaz batera.
- 18:55 Soinubil eta txistulariekin batera 'Gora Otxandioarrak' abestia.
- 19:00 Txupinazoa: Hezkuntza komunitatearen eskutik. Otxandioko eskola 50 urte euskalduntzen, 'Inkernuz ereiten'. Ondoren, ohiko DANBORRADA.
- 20:30 Eusko Label haragi pintxoak.
- 23:00 Erromeria: Altxa Porru taldea.

UZTAILAK 18 SANTA MAÑA EGUNA

- 11:30 Udal Musika Bandaren kalejira.
- 12:30 Meza nagusia, Santa Marinaren omenez.
- 13:30 Kaleik kale txistularien kalejira.
- 14:00 Mutrikuko Erraldoiak eta Buruhandiak, Otxandioko eta Bizkaiko gaiteroekin batera.
- 19:00 Urduri dantza taldearen ikuskizuna.
- 20:00 Akelarre txaranga.
- 23:00 Gozategi taldea.
- 01:00 DJHMNOK ETXERA.

UZTAILAK 19

- 12:00 Arimen meza.
- 12:30 Herriko umeen pilota partiduak, Iluntxo pilota elkartearen eskutik.
- 13:30 Nafarroako Aupa La Jota taldea.
- 17:30 Master Caixa Bank pilota partidu profesionalak: Serie B: Murua-Eskiroz / Zubizarreta IV-Bikuña Serie A: Elordi-Marizkurrena / Larrazabal-Zabaleta
- 20:00 Korrontzi taldea.

UZTAILAK 20 GAZTETXOEN EGUNA

- 12:00 6. mailakoek eguneko txupina botako dute udaletxeko balkoitik.
- 12:05 Puzgarriak, ur jolasak eta tailerrak, plazan.
- 15:00 Gaztetxoaren bazkaria.
- Ondoren, izozkia.
- 16:30 Bits festa.
- 18:30 Merienda.
- 19:00 DJ Raizti.

UZTAILAK 22 SOKA DANTZA

- 09:30 Vicinay-ko adarra eta su kanpaiak.
- 18:00 'Kanpaien oroimena, herriaren arnasa', Andikonako plazan. Lore eskaintza, Andikonako iturrian. Karrilloi eta kanpai kontzertu parte hartzailea.
- 20:00 Soka dantza, Plaza Nagusian.
- 21:00 'Haritik tiraka' antzezlanak Andikona plazan.

UZTAILAK 24

- 17:00 Tute, mus eta briska txapelketak.
- 19:30 V. Otxandioko Goxua Txapelketaren finala, Josetxu, Motxile eta Kaitoren omenez.
- 22:00 Kuadrillen arteko play back-a, plazan.

UZTAILAK 25 SAN MARTIN EGUNA

- 12:00 Bandaren kalejira.
- 12:15 Otxandioko Urbiribil dultzainero taldearen kalejira San Martinera.
- 12:30 Meza San Martineko basilikan.
- 14:00 San Martin paella txapelketa (mahai eta aulkien erreserba egiteko: uztailak 23, 08:00etatik 14:00etara bitartean, udaletxean bertan).
- 17:00 Ardoa Barrura txaranga.
- 23:00 Kontzertuak: · Nafarroa 1512 · Linea Roja · Ondoren, DJ Xaukena Xauk.

UZTAILAK 26 AGUR SANTAMAÑAK

- 07:30 Diana eta kalejira.
- 08:00 Sokamuturra.
- 12:00 Meza santua.
- 13:00 Omenaldia 1936an bonbardaketan hildakoei, Andikonan.
- 13:45 Limonada plazan.
- 14:00 Otxandioko Bandaren emanaldia.
- 18:00 Herri kirolak plazan.
- 20:00 Joselu Anaiak erromeria.
- 00:00 Agur Santa Marina.

GUARDIAKO BOTIKAK

UZTAILAK 17, BARIKUA

09:00-09:00
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

UZTAILAK 18, ZAPATUA

09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17- Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

UZTAILAK 19, DOMEKA

09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 20, ASTELEHENA

09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

UZTAILAK 21, MARTITZENA

09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

UZTAILAK 22, EGUAZTENA

09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

UZTAILAK 23, EGUNA

09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan. 22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

OROIGARRIA

ORAIGARRIA

Eneko Akarregi Otxoantesana



Dana emoten zendun gustokoa jatzun horretan baina zure habitata trintxera zan. Gaixotasun ederra da gustokoa ez dana aldatu gure izatea baina ederragoa irribarre bategaz jantzita egitea.... gero arte kamarada!

Durango BHI-ko zure lankideak

GOZATU GOZOTEGIA



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 gozatudurango@gmail.com
661 401 400 Gozatu Gozotegia
[gozatugozotegia](https://www.gozatugozotegia.com)

Zorionak Jose Luis (1071.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitza.



Oihane
Uztailaren 17an, 16 urte. Uztailaren 17an Oihane 16 urte egiten ditu. Hemendik besarkada estu bat bidaltzen dizugu. Disfrutatu zure eguna.



Garazi eta Julen
Zorionak, bikote. Ondo ondo pasa ezkonbidaian eta topa etorkizunari. Zorionak eta gora ezkonberriak!

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

Normal



KAROL SUAREZ
BORGES

Bi hilabete pasata ditu Libek. Laster, hiru. Berak ez du tutik ere ulertzen, baina bere belau-naldiak aurrean izango dituen erronkez hitz egiten diot ikusten dudana bakoitzean. Jaio berri bat izanda, mentalizatzen joan dadin-edo.

Martitzenean, terrazako iturrira Espainiako kamisetadun mutiko bat hurbildu zen. Edan, asetu eta ospa. Antzera, beste ehun bat ikusiko nituen asteen Donostian, Iruñean, Durangon... Ez dut akorduan horrelakorik beste urte batzuetan ikusi izana. Ezinegona, beti. Baina aurten, inoiz baino gehiago arduratu nau.

Liberi esan nion guretzat ez zela batere ohikoa irudi hura. Edo bai. Nik, behintzat, ez nuen ikusi nahi. Umetan ez nituen entzuten Espainiaren gol bakoitzarekin halako ospakizun oihuak. Azaldu nion, guri inposatutako normaltasun hau beretzat normala izango dela noiz-bait, agian. Eta hori ere borrokatu dezala.

Normaltasuna. Hitz arriskutsua da. Normala ez da beti naturala. Batzuetan, urte luzez iraun duen ukazio baten ondorioa besterik ez da. Zapalkuntzak ez du beti debekuen aurpegia. Batzuetan, isilago jokatzen du: gauzak horrelakoak direla sinetsarazten digu. Eta horrela, ia konturatu gabe, normaltzat hartzen dugu gure selekzioak ofizialtasunik ez izatea, gure burua ordezkatzeko aukerarik ez edukitzea.

"Aire zabaleko pintura lehiaketek guztiz harrapatu naute azken bi-hiru urteotan"

FERNANDO DE VICENTE GARRIDO PINTOREA

Aitziber Basauri DURANGO

Irailean 25 urte beteko dira Durangoko Beittu Art Galery zabaldu zutela. Arte garaikiderako espazio legez jaio zen Montevideo kalean, eta orain hamar urte norabide berriari ekin zion Artekalean, Beittu Art Factory bilakatuta. Ibilbide horretan, prestigiodun artistekin lan egin dute; besteak beste, Juan Luis Goenaga, Marta Cárdenas, Mari Puri Herrero, José Luis Zumeta, Alfonso Albacete, Juan Luis Baroja Collet eta J.A. Azpilicuetatik artistekin. Fernando de Vicente (Durango, 1965) bizi osoa darama margolaritza irakasten. Sormenak askatasuna ematen duela dio.

Zelan sortu zen ideia arte garaikiderako espazio bat sortzeko?

Ezkurdi aretoa baino ez zegoen orduan Durangon, EAEn erreferente bihurtu zen aretoa, baina ordurako indarra galtzen hasita zegoen. Dinamika horregaz jarraitu gura genuen, esparru pribatuan. Ilusioa genuen, gure mundua zen eta pauso bat aurrera eman genuen. Sei urtean mantendu genuen zabalik. Gero, artelan grafikoen edizioan aritu ginen urte batzuetan.

Gero Beittu Art Factory jaio zen, irakasteko espazio bat.

Bizi osoa daramat marrazketa eta pintura eskolak ematen. Bada, orain dugun espazioa hartzea erabaki genuen, apur bat gehiago eskolak ematera bideratuta. **Zelako lana da ume eta helduengan sormena sustatzea?**



Fernando de Vicente, Beittu Art Factoryn.

Gogoko dut. Eskolak ematea bokaziozkoa izan behar da. Umeak irabazi egin behar dituzu, dibertitu egin behar dira. Helduekin desberdina da. Liluratu egin behar dituzu, baina prestakuntza guztietan legez, trebatu egin behar da, eta hori ez da egun batetik bestera gertatzen. Jarduera dibertigarri eta sortzaileak proposatu behar dira ilusioz jarraitzeko.

Gaur egun gatx da umeak artera erakartzea?

Umeek berezko joera dute marrazteko, pintatzeko eta plasti-



karako, baina aldi berean ohi-tuta daude berehalako erantzunak edo emaitzak lortzera, eta hor talka sortzen da. Lehen, pazientzia handiagoa zegoela esango nuke. Helduekin berdin pasatzen da.

Pintatzeko pazientzia behar dela esaten dute.

Denbora behar da trebetasuna hartzeko, edozertan. Baloia jaurtitzeko ere bai. Pintatzeko, ikusmena hezi behar da, eta trebakuntzaz gainera eskumuturra landu behar da; ikusmena lantzearen besteko garrantzitsua du eskua lantzeak.

Zer garrantzia du sormena lantzeak?

Sormena dena da. Askatasuna, ispiritu kritikoa, segurtasuna eta autokonfiantza ematen ditu. Inoiz pentsatu bako bideak zabaltzen dizkizu, baita kirol jardueran ere. Bizitzari zentzua ematen diola esango nuke. Batzuek ziurtasuna behar dute lasai sentitzeko, eta sormenak hori deuseztu eta bide berriak topatzera eramaten zaitu. Konplikatu da, arriskutsua, baina askatasuna ematen du.

Baduzu momentu berezirik gogoan?

Asko! Ikasle bat bere bidea urratzen ikustea zoragarria da. Baita norbaiti lagundu diozula sentitzea ere.

'Premiazko pintura' erakusketa zabaldu duzu, aire zabaleko pintura lehiaketetan egindako lanekin.

Sortzeko modu horrek guztiz harrapatu nau azken 2-3 urteetan. Batez beste, bost ordu dituzu lana amaitzeko: gaia aukeratu, zelan egin erabaki, marraztu... Erronka bat da eta neure buruagaz dudana lehia horretan adrenalina askatzea gustatzen zait.

Zeintzuk erronka dituzu orain?

Margotzeko egun bat hartzeko luxua izatea. Erronkak hartuta pinturagaz dibertitzen jarraitzea.

Motzean

Pintura ala ilustrazioa?

Pintura.

Akuarela ala akrilikoa?

Momentu honetan gehiago liluratzen nau akuarela.

Erretratoak ala paisaiak gurago dituzu?

Erretratoa.

Pintore bat?

Chien Chung Wei.

Beittu Art Factory da...

Ilusioa.

**PABILIOIA
SALGAI**
lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

